
GREENPEACE ETA EKOLOGISTAK MARTXAN TALDEEN TXOSTENA

GIPUZKOAKO HIRI HONDAKINAK KUDEATZEKO PLAN OROKORRARI BURUZ

“Plana tresna bat da eta komunitate jakin bati – Gipuzkoarrari – zerbitzua eman behar dio eta horretarako ezinbestekoa da horren ezaguera eta onarpena, informazio-politika zorrotza eta gardena era irmoz bultzatuz”
(GHHKPO, 2002ko maiatza)

1 SARRERA

Ez dago inongo zalantzarik edozein Hondakin Plana eraginkortasunez aurrera eramateko gizartearekin bat egin behar duela. Ingurumen arazoan artean, pertsonen egunerokotasunean eraginik handiena duena zaborrena dela agerian da. Gero eta baliabide gehiago xahutzen ditugula ohartzeko gure hondakinei begiratzea besterik ez dago. Horietako baliabide ugari produktu bihurtuta hain erabilera-denbora motza daukate, non minutu gutxiren buruan hondakin bilakatzen baitira. Horregatik, aipaturiko esparruan gizartearen sostengua lortu ahal da eta hori bilatu behar da. Ikuspuntu honetatik Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Planak dagoeneko porrot egin duela esatea badago. Proposatzen dituen azpiegiturak eraiki ala ez, horren kontra dauden elkarteak eta oro har herritarrak asko dira. Izan ere, Hondakin Plan baten arrakastan gehien lagundu dezaketen gizarte-eragileak, ingurumenaren kontserbazioaz kezkatuak baitaude, dira hain zuzen ere Kudeaketa Plan honen aurka sutsuen ari direnak.

Abiapuntua kezkarria bada Planaren egileek planteatzen dutenaren arabera (Zabortegien bizitzaren amaiera, zaborren sorrera goraka), argi dago Plan honek egoera hobetu ordez larritu egiten duela. Alde batetik ez da benetako eztabaidarik izan, edozein alternatibaren ardatz nagusi gisa errausketa planteatu baita. Bestetik, azpiegitura horiek inposatu nahi den moduak berak gizartean jendearen haserrea ekarri du.

Gizarteak eta Gipuzkoako Erakunde Publikoek zer egin ez dakitela dabilta. Oraindik aintzindaria den bidea hautatzea badago, hiri hondakinen politika berriaren aldeko apustu garbia eginez. Aitzitik, beste hainbat eta hainbat tokitan egindako akatsak errepikatzeko bidean dira, datozen belaunaldiek bestelako politikaren bat aukeratzeko eskudibea kolokan jarriz.

Garapen Jasangarriaren Euskal Ingurumenen Estrategiak (2002-2020), Eusko Jaurlaritzak 2002ko ekainean onartua, eta Ingurumen Programa-Markoak (2002-2006) dituzten jomuguen artean natur baliabideen eta hondakinen kudeaketa arduratsua aurki daiteke; horien helburretan amaierako edo azken hondakinen ekoizpena gutxitzea eta hauen sorleketan, aurreikuspenaren bitartez, hazkunde ekonomikoa eta hondakinen sorreraren arteko disoziazioa lortzea egonik, aldi berean kontsumo azturen aldaketa sustatuz. Ez da hori ordea egungo Hondakin Planak bilatzen duena.

Gipuzkoako udalerrri ezberdinetan, Donostia barne, Tokiko Agenda 21aren barrenean Ekintza Planak adostu eta onartzen ari dira, zeinetan hondakinak beharrezko edo gutxitzea, berreabilitzea eta birziklatzea Lerro estrategikoaren oinarria diren. Udaletxe askotan harturiko konpromisoa izanik, Mankomunitateek Gipuzkoako Foru Aldundiak bultzatu duen Hondakin Planari emandako sostenguarekin ez dator bat, jarrera kontrajarriak erakutsiz.

2 HIRI HONDAKINEN ARAZOA

Gaurko belaunaldiaren bizi-kalitatea bermatzen duen garapen eredua, etorkizunean etorri daitezken belau-naldiena arriskuan jarri gabe nola eraiki, da mende honen hasierako erronka. Batzuek garapen iraunkorra deritzote eta beste batzuek zentzudun izatea besterik ez. Ingurumenaren defentsarako elkarteetan, egungo eredua baino jasangarriagoa den beste batera iristeko xedez, berebiziko ahalegina egiten ari da. Argi dago zabor gehiago sortzen dugula Lurrak asimilatu dezake-na baino. Horren ondorioak ingurunean begibistan dira: klima aldaketa, basoen suntsiketa edota toxikoak diren substantzien metaketa besteak beste.

Ingurumenean eragina duten faktore ezberdinei buruzko informazioa gero eta zabalagoa da. Orain arte ditugun datuak eta maneiatzen diren adierazleak kezkatze-ko modukoak dira, egoerak hobera egin beharrean kasu askotan okerrera baitoa. Hondakinena adibide garbia da, zaborren sorrera etengabe gora egiten ari da eta: Estatu mailan, Ingurumen Ministeritzaren datuen arabera, 91 eta 98 bitartean hiri hondakinak %30 igo dira, 17 Tm/urte izatera iritsi direlarik. Hondakin sorreraren indize horiek azken urte hauetan birziklapen-maila handitzeko egin diren ahaleginak neutralizatu egiten dituzte, azkenean era batean edo bestean landu eta tratatu behar den zabor-kopuruak handitzen jarraitzen baitu.

Gipuzkoako datuok oraindik okerragoak dira, zeren eta Foru Aldundiaren Hiri Hondakin Planaren aurrerapen-dokumentuaren arabera, azken bost urtetan, batez beste-ko %9ko handiagotzea eman baita urteko, 95ean 215.012 tonelada jasotzetik 2000. urtean 330.593 Tm biltzera igaroz. Populazioa, artean, bere horretan jarraitu duela kontuan hartu behar da.

Datu horiek bi kontu uzten dituzte agerian. Lehenbizikoa zaborraren sorrerak eta ekonomiak hazkunde paraleloa dutela. BPG eta hondakin enekoizpe-naren arteko erlazioa jasangarritasunaren adierazle gar-bia da eta, ondorioz, egungo egoera ingurumenaren alderditik ez dela batere iraunkorra baieztatu dezakegu. Argi dago, beraz, eredu jasanezinean ari garela mugitzen.

Greenpeace eta Ekologistak Martxan taldeetatik urteak daramatzagu aldarrikatzen ahalik eta kalte gutxien era-giten duen hondakin-politikaren gakoa materia organi-koaren bilketa eta tratamendu bereiztuan dagoela. Gipuzkoan materia organikoa hiri hondakin en %33.36 da. Horri %40 beira eta papera dela gehitzen badiogu, zaborraren %70 erraz bereizi daitekeela eta gaikako tra-

tamendua izan dezakeela, zabortegira bota gabe, ondoriozta daiteke. Zalantzarik gabe, teoria gauza bat dela eta beste bat egunerokotasunen errealitatea esan-go dute, baina ezin da garapen iraunkorraz mintzatu egungo egoera mantenduz. Jasangarritasunerantz alda-tu nahi badugu helburu handinahiak behar dira. Gure inguru ekonomikoan diren beste hiri batzuek dagoene-ko bide horretara jo dute.

Gure ikuspuntutik, aurkezturiko Hondakin Planak, ondoko hasierako planteamedu okerrak ditu:

- Datu-nahasketa ematen da era interesatuan eta hiri hondakin en sorrerari (266.293 Tm/urte) beste batzuk gehitzen zaizkio, gehien bat araztegien lohiak (130.172 Tm/año). Beraz, Gipuzkoan mezuak nahita ari dira nahasten eta jakitera eman duten zabor-kopuru-a, 400.000 tonelada urtean, ez dator bat benetako zen-bakiekin.
- Araztegien lohiei lotutako arazoek ez dute zerikusirik zaborrek dutenekin eta horien kudeaketa ere ez. Izan ere, Hiri Hondakin en Planaren barnean aipaturiko lohiak sartzeak arre-ta deitzen du, batez ere Eusko Jaurlaritzak berak horien tratamendurako beste bide ezberdinak ezartzen dituenean.
- Gainera, Hiri Hondakin Planak zaborren sorreran eten-gabeko igoera aurreikusten du. Planteamenduaren ara-bera gorakada %1.3koa izango da urtean. Ondorioz, Plan honek ez dio lehentasunik ematen prebentzioari.
- Aitzitik, bere helburua “Hiri hondakin en sortze-tasa %90 gutxitzea” da. Eta ez da egia, kontraesana suposatzen du, zabor-kopuruaren emendioa ontzat hartzen du eta. Orduan, honako baieztapenez justifikatzen du: “ urtean %13ko hazkundetik %1.38ra pasatuz urteko metatzean”. Laburbilduz, Planak onartzen du eta ontzat ematen du hondakin sorreraren gorako joera nabarmena.
- Deigarria suertatzen da zaborren sorrerari dagokionez hain planteamendu kontserbadorea eta Eurapako hon-dakin politikaren lehenengo helburutik, zeina zaborren produkzioaren gorakada balaztatzeko prebenzioan oinarritzen baita, hain urrunduta izatea.
- Hondakin Planak arazoari 2016 urtera arte bere osota-sunean aurre egin nahi badio gutxienez sortutako zabor-kopuruaren %20 gutxitzea proposatu behar duela uste dugu. Hots, 2016ra iristea egun sortzen den zabor-kopuruaren %20 gutxituz.

3 MATERIA ORGANIKOAREN TRATAMENDUARI BURUZ

Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako datuen arabera zabor-poltsaren %33,36 materia organikoa da. Beraz, gure hondakinen zatirik handiena. Eta horrela izanik ere ez zaio arretarik jartzen, zati nagusi horren gaikako bilketarako urratsik eman gabe.

Hondakin Planak 1999/31/CE Arztejaraua eta Estatuan dagokion transposizioa (1481/2001 Errege Dekretua, abenduaren 27koa) aipatzen ditu. Aipatutako Arztejarauaren helburua da, hain zuzen ere, materia organikoa aurretiko tratamendua izan gabe zabortegetara iristea. Ez dago inondik inora zaborra errausteko agindu zehatzik – egiten den Arztejarauaren deskribapenetik ondoriozta daiteken bezala – baizik eta materia organikoa behar bezala tratatu beharra dagoela. Honekin Arztejarauak materia organikoak zabortegetan eragiten dituen arazoei konponbidea aurkitzen saiatzen da.

Materia organikoa bereiztea eta ondorengo bere hartidura, energia produzitzeko erabil daiteken metanoa sortzen duen prozedura da, azken produktua ongarri naturala den konposta izanik.

Planean agertzen den konpostaia erabat bazterrekoa da eta soilik lorategi zein inausketaren hondakinenzako tratamendu-sistemara mugatuta egonik irudia baino ez da. “Gipuzkoan konpostaren beharrak urriak direla” esanez konpostaia deskalifikatzen da. Eta zergatik bakarrik mugatu Gipuzkoara.

Hala ere, badago esatea:

- Errausketaren alternatiba zaborraren zatirik handiena den materia organikoaren berariazko tratamenduan datza.
- Konpostaiak materia organikoaren bolumena nabarmen gutxitzen du erabiltzeko prest dagoenerako.
- Errauts toxikoen beharrak Konpostarenak baino eska-sagoak dira ezbairik gabe, izan ere, konposta produktu naturala baita. Konpost eta errautsen arteko alderaketa beti konpostaren aldekoa da.
- Legeriak kutsakortasun-maila konpostean zorrozki mugatzen du. Kutsatuta dagoen konposta ez dela nekazaritzan erabili behar begibistan dago.

- Hondakin Plan baten helburua honkinei irtenbiderik onena ematea da. Materia organikoaren tratamendu bereiztua, ingurumenaren ikuspuntutik, askoz hobea da errausketa baino, baita lortutako konposta erabiltzerik ez badugu ere.

Bereziki deigarria da kontuan hartzeko alternatiba izanik, Planak proposatzen dituen alternatiben artean batean ere ez azaltzea funtsezko elementu gisa. Materia organikoaren edozein berariazko tratamenduren bazterketa, errausketa alternatiba bakarra bailitzan aurkezteko interesatik baino ez da ulertzen. Horrek agerian uzten du Planak proposaturiko alternatibak hasiera-hasieratik erabakita zeudela.

Benetan, hiru alternatibentzat komuna den elementu bat badago, hiriko lorazaintzatik nahiz inausketatik datozen hondakinenzako konpostai-planta txikia, alegia.

4 GIPUZKOAKO HONDAKIN PLANAK AURKEZTUTAKO “ALTERNATIBAK”

Hondakin Planak posibleak diren hiru kudeaketa-alternatiba definitzen ditu eta horiek, aldi berean, beste batzuetan banatzen dira. Aipatutako alternatiba hauek dira:

Alternatiba 1

- Gipuzkoa osorako errausketa-planta bakarra (zepak heltzeko planta batekin).
- 1 edo 2 planta hondakin eta araztegien lohiak aurretiko tratamendu mekaniko-biologikorako.
- Sasieta, Lapatx eta Urtetan hondakin isurketa.
- Erraustegiaren bizigabeturiko errautzentzako gordailua segurtasun-gela batean.

Alternatiba 2

- 1 edo 2 erraustegi (Txingudi eta Donostialdea).
- Gipuzkoako beste lekuentzako aurretiko tratamendu mekaniko-biologikorako planta 1. Sasieta, Lapatx eta Urtetan hondakin isurketa.
- Erraustegiaren bizigabeturiko errautzentzako gordailua segurtasun-gela batean.

Alternatiba 3

- 1, 2 edo 3 erraustegi (bat Donostian, beste bat Txingudin eta azkena Gipuzkoako gainontzeko lekuentzat).

Azken batean, buelta gehiago emanagatik, Gipuzkoako Hiri Hondakin Plana errausketaren inguruan baino ez da mugitzen, gainontzeko alternatibak aztertu ere egin ez direlarik.

5 PLANA PRESTATZEKO BIDEA

Greenpeace aurretik bidalitako gutunari erantzunez, hona hemen Garapen Jasangarrirako Foru Diputatuak adierazitakoa:

“Gipuzkoako Hiri Hondakin Plana birplanteatzeko eta berria lantzeko zuen eskaera jaso dugu. Zentzu horretan, Planaren prestaketa-prozesua luzea eta neketsua izan dela azpimarratu nahiko nizuke. Bi urteetan zeharreko ibilbide horretan Gipuzkoako 88 udalerriek osatzen dituzten 8 mankomunitateek parte hartu zuten eta, herritarren partaidetzari buruzko UEko 13 A Oren irizpideei eutsiz, gizartearen partaidetzarako mintegi berezia (EASW) antolatu zen.”

(email-en bidez jasota, 2004ko abuztuaren 16an)

Baina, egia al da Plana idazterakoan partaidetza sozial handia bilatu zela? Ez, ezertarako ez. Goazen egintzak aztertzeraz.

“Partaidetza zabala” aipatzen denean, Donostian 2002ko azaroaren 29 eta 30ean burutu ziren lantegiez ari direla dirudi. Bada, mintegi horietan 30 bat lagun bildu ziren, erakunde publikoen teknikariak eta gizarte-mugimendu bakar batzuen ordezkariak zirela medio. Bertan, hondakinek sortzen dituzten arazoengatik inguruko eztabaida zabala eman zen. Mintegiaren laburpen-dokumentuak, 61. orrialdean, ondokoa azaltzen du:

“Bukatzeko, nabarmendu behar da partaidetza-prozesuak arreta ez zuela Hiri Hondakin Planean jarri, zeina Gipuzkoako Plan Orokorra onartzeko fase oso aurreratuan baitago, baizik eta Gipuzkoako hondakinen kudeaketaz bertaratu ziren herritarrek duten ikuspuntuan.”

(Gipuzkoako hondakinen etorkizuna, EASW eztabaida-tailerra, 61. orr.)

Hau da, Hondakin Plana onartzeko bidean zegoela eta horregatik tailerrean ez zela eztabaidatu. Horrek, dena erabakita zegoelako, herritarren partaidetzarik ez zela eman agerian uzten du. Aipaturiko mintegian jatorri ezberdinetako aditu talde bat elkartu zen hondakinei buruz hitz egiteko, besterik ez. Beraz, ez da ezertarako gizartearen partaidetzarik eman prozesu osoan.

Horrek ere tailer horretan parte hartu zuten hainbat lagunen iruzur-sentsazioa azalduko luke, haientzat mintegia gerora jakingo genuena justifikatzeko trikimailu

eta erakusleihen hutsa izan zelarik. Greenpeace eta Ekologistak Martxan taldeen izenean joan ziren pertsonak gertaturikoa baieztatzen dute.

Baina goazen haratago. Mintegi horretatik ideiak ezberdinak aukeratu ziren. Horietatik, sostengu gehien lortu zuten hirurak aztertuko ditugu eta Planean agertzen direnentz ikusiko dugu.

• **Legeriak zein ekonomiak ematen dizkigun tresnen bidezko hondakinen murrizketa bultzatzea, hondakinen jarraipenerako egokiak diren adierazleak ezarriz.**

Lehenik eta behin, Hondakin Planak ez du gutxitze hori aurreikusten, urteko %1.3ko zabor-kopuruaren emendioa baizik. Beraz, Partaidetza-Tailer horren lehen gomendioa Planak ez du bereganatzen. Are gehiago, alternatiba ezberdinek hondakinen kudeaketan dute oinarri, prebentzioa eta murrizketa aurreikusitakoak.

• **Herritarrontzako informazioa eta kontrol aukera kudeaketa gardenaren bitartez, Kudeaketa publikoari esker posiblea dena.**

Gardentasun, informazio eta kontrol eza nabariak izan dira bi erraustegiak onartzeko prozesuan.

• **Errausketa mugatua: azken aukera bezala zabortegean bota aurretik, diseinu baldintzetan gaikako bilketaren ostean berrerabili, birziklatu edota konpostatu ezin diren hondakinak mugatua.**

Horixe da errausketaren aldekoek sartzea lortu zuten puntua. Hala eta guztiz ere, ez da betetzen, Gipuzkoan egun sortzen diren hondakinak erretzeko baino ahalmen handiagoa baitute mahai gainean dauden alternatibek. Are gehiago, planten bideragarritasuna bermatzeko kanpotik hondakinak ekartzeko asmoa dago.

Hitz gutxitan esanda, Hiri Hondakin Plana ez zen ustezko partaidetza-prozesuan jorratu eta bertatik ateratako ondorioak ez dira ezertarako kontuan hartu.

6 ONDORIOAK

Arestian aztertutako faktoreei begira ondoko ondorioak atera ditzakegu:

• Hiri Hondakin Plana lantzeko eta idazteko garaian ez da gizartearen partaidetzarik izan. Ez da harriztekoa beraz, aurkako oiartzun zabala egotea gizartearen.

• Hondakin Planak hondakinen sorreran status quo delakoari eutsi egiten dio eta nola kudeatu besterik ez du bilatzen.

- Planak zabor-kopurua beste hondakin mota batzuekin nahita nahasten ditu, kudeaketarako alternatiba ezberdinak ezarri gabe.
- Hondakin Planak bere helburuetan ez du prebentzioa eta murrizketa aurreikusten. Izan ere, sortuko diren hondakin-kopuruaren igoera planteatzen du.
- Hondakin Planak materia organikoaren tratamendu bereiztua baztertzeko du pisuko azalpenik eman gabe.
- Hondakin Planak errausketaz bestalde ez du alternatibarik eskaintzen.

Greenpeace eta Ekologistk Martxan taldeek Gipuzkoako Foru Aldundiari ondoko neurriak berehala hartzeko gomendioa ematen diote:

- Errauskegien proiektuak geratzea.
- Prebentzioa eta birziklapena bultzatzeko helburua duten neurriak indarrean jartzea.
- Errausketaz gain, gainontzeko alternatibei buruzko ikerketak egitea eta guztien arteko alderaketa egitea.

Eta hori guztia Gipuzkoako herritar guztiok jasangarritasunerantz eraman gaitzan Hiri Hondakin Plana eraikitzeko asmoz.

GREENPEACE

www.greenpeace.es
91 444 14 00

EKOLOGISTAK
m a r t x a n GIPUZKOA

www.ekologistakmartxan.org
900 110 111